

M.U.ko ikasle batek sortu du Zabaldu.com

2007/05/24

Arkaitz Zubiaga Mondragon Unibertsitateko ikasle arrasatearrak sortu du Zabaldu.com, joan den astea ezkerre euskal blogosfera astindu duen webgunea.

Ingeniari informatikoa da Arkaitz, eta web diseinua eta programazioa ditu gustuko. Nahikoa izan du hilabete inguru **Zabaldu.com** sortu eta euskal blogosfera dantzan jartzeko.



Zer da Zabaldu.com?

Zabaldu.com webgune bat da, baina bere oinarrian sistema bat du aukera ematen duena irakurle euskaldunek Interneten aurkitutako **albisterik** interesgarrienak konpartitzeko. Horrela dabil, gutxi gorabehera: irakurle batek albiste bat aurkitzen du Interneten, eta interesgarria iruditzen zaio. Zabaldu.com-era bidaltzen du, gainerako irakurle euskaldunek ere izan dezaten horren berri.

Beste irakurleek interesgarri aurkituz gero, **boto** bat emango diote. Hainbat boto jasotakoan, azalean agertuko da, boto gehien jasotzen dituzten albisteen ondoan.

Hori guztia boto ponderatu sistema baten bidez, zeini deitzen zaion **karma**. Horren arabera, albisteak sarri bidaltzen dituenaren botoak gehiago balio du behin bakarrik bidaltzen duenarenak baino.

Prozedura guztiak oso ondo azaltzen dira orri honetan:

- <http://www.zabaldu.com/faq-eu.php>

Zergatik Zabaldu.com?

Arkaitz Zubiagak sortu du Zabaldu.com, eta horretarako nahikoa izan du hiruzpalau aste. Gero Mutilmedia taldeko bere lagunaren laguntza izan du **Zabaldu.com** osatzeko, pluginak-eta eginda.

Horrela kontatzen du berak zerbatiak sortu duen Zabaldu.com: *Ba egia esan ia-ia hasi zirenetik irakurtzen ditut Digg.com eta Meneame.net-eko albisteak eta laster izan nuen egitasmoa **euskaraz** abiarazteko asmoa, euskal blogosferan ere eragina izango zuelakoan, baina guztia zerotik hasita garatzeak lan asko zuela-eta, ez nuen egiteko denborarik izan. Meneame.net-eko **Ricardo Gallik** kodea denon eskura jarri zuenean (urte hasieran, gaizki gogoratzen ez badut) izan zen benetan proiektuari ekitea erabaki nuenean. Eta horrela, otsaila bukaera-martxoan hasieran kodean behar ziren aldaketa guztiak egin eta euskarazko klon batentzako egokitu nuen. Eta horrela gaur arte. Harritu egin nau blogosferan eta baita zenbait erakundetan ere izan duen oihartzuna, baina pozgarria da euskarak Interneten bere lekutxo baduela ikustea.*

Arkaitz Zubiaga

Arrasaten jaio zen, eta **Ingeniaritza Informatikoa** ikasi du Mondragon Unibertsitatean. Gaur egun karrera amaierako proiektua egiten ari da Ulma Handling Systems kooperatiban.

Web diseinua eta programazioa ditu gustuko. Berak sortu du Berri Txarrak euskal musika taldearen webgunea. Euskarazko softwarea erabiltzea gustatzen zaio, eta zenbaitetan **itzulpenak** ere egin izan ditu (eMule eta WordPress 2.0, besteak beste). Horrez gain, noizbehinka artikulua idazten ditu euskarazko Wikipedian.